


Iritziak



Alfabetatzearen mailaketa

(Oinarrizko maila)

Beste ezertan hasi aurretik, terminologiaren arazoa aipatu nahi nuke, azaletik bederen. Izan ere, alfabetatzearen alorrean, eta batez ere maileri buruz dihardugunean, erabiltzen diren izenek nahaste-borrastea sortzen dute.

Esate baterako, argitaratu berria den «Helduen alfabetatzerako programazioa» liburuan, alfabetatzeko bi maila bereizten dira: oinarrizko maila eta alfabetatze teknikoa; eta oinarrizko maila horrek bi zati edo aldi izan ditzake: sarrerako maila eta hobekuntza maila. Beste zenbaitek, ordea, Urraspide Sean egiten den bezala, alfabetatzea bi zatitan banatzen du: hasierako maila eta hobekuntza maila; eta alfabetatze teknikoa beste arazo bat bezala hartzen du.

Bestalde, eta gauzak sakonago aztertuz, alfabetatze izena bera dago krisian gure artean. Euskal Herrian erabateko analfabetorik ia ez dago. Jendeak badaki irakurtzen eta idazten. Beraz, inork ez dauka bere burua analfabetotzat, eta horixe ageri da egiten diren inkestetan.

Baina euskaldunak irakurtzeko eta idazteko behar dituen trebetasun horiek ez dakizki euskaraz erabiltzen, eta hemendik abiatzen da gure alfabetatze lanaren planteamendua. Bistan denez, ez da alfabetatzearen ikuspegi tradizionala. Agian, interesgarria litzateke gure egoera linguistikoari egokiago letorkiokeen terminologia asmatzea.

Terminologiaren arazoa esperientziak berak argituko du, batez ere. Ondorengo lerroetan egiten den planteamenduak ere eman diezaioke, agian, argibiderik.

Alfabetatzearen mailaketa

«Helduen alfabetatzerako programazioa» liburuan, honelaxe definitzen da euskaraz alfabetaturiko pertsona: «Kultura orokorraren mailan hizkuntzaren lau trebetasunak (entzutezko ulermena, mintzamena, irakurriaren ulermena eta idazmena) euskaraz ongi erabiltzeko gauza dena».

Alfabetatzearen helburua, beraz, lau trebetasun horiek lortzea da. Baina alfabetatzea, bereziki, irakurtzeari eta idazteari dagokio, mintzamena eta entzutezko ulermena suposatua bait daude. Hau da, alfabetatzea hiztunentzat da. Baina gure kasuan euskara era desberdinetan hitzegiten da, euskalkiak edo herriko hizkerak erabiltzen bait dira. Bestalde, mintzamena eta entzutezko ulermena ez dira egungo oinarrizko kulturak eskatzen duen mailan erabiltzen. Horiek horrela, mintzamena eta entzutezko ulermena ere helburutzat hartzen dira, landu behar diren trebetasunen artean.

Alfabetatzearen helburuok eta Euskararen Gaitasun-Agiriarenak berdintsuak dira; biek euskara maila bera eskatzen dute. Bestela esan, EGAREN maila gainditzen duenak alfabetatzearen helburuak betetzen ditu, hots, alfabetatua da. Beraz, EGA alfabetatzearen maila bat bezala har daiteke, azkenengoa bain zuzen. Izan ere, EGAK zer eskatzen du: kultura orokorraren mailan euskara ahoz eta idatziz erabiltzeko gai izatea, hau da, pertsona alfabetatua izatea.

Horra hor alfabetatzearen helmuga, azkenengo maila.

Baina helburu eta eduki linguistikoetatik at, edozein mailaketak jendearen, kasu honetan alfabetatugaien interesak, premiak, egokierak eta gaitasunak izan behar ditu begien aurrean. Alfabetatzeko ikastaroetara publiko heterogeneoa hurbiltzen da. Heterogeneitatea euskara, kultura, adina, ikasketa eta lanbide maila desberdinetan oinarritzen da. Alfabetatugaien artean batzuk EGA maila nahiko dute. Askok ez dute behar maila hori. Alfabetatze prozesua EGA mailara iritsi baino lehenago bukatu behar edo nahi duenik ere izango da alfabetatugaien artean.

Izan ere, EGAK eskatzen duen maila alfabetatu arruntari eskatzen zaiona baino altuago da. Hau da, gaurko gizartean, eguneroko premia arruntei erantzuteko ez dago EGAraino iritsi beharrik. Esan nahi dudana EGAK idazmenean eskatzen duen mailan ikus daiteke. Gaurregun jendeak oso gutxi idazten du, nahiz eta idazmena baduen. Eta datu honek ez du euskararen kasuan bakarrik balio, noski. Baina euskararen kasuan areagotu egiten da.

Zergatik eskatu, orduan, bi orrialde zuzen eta egoki idaztea beren bizitzan oso gutxitan idazten eta idatziko dutenei? Lanbidez edo gustoz idatzi behar edo nahi dutenei EGA maila eskatzeari ongi deritzot. Baina badirudi beste guztiei maila hori eskatzea ez dela biderik egokiena.

Horiek horrela, lanerako behar ez dutela eta, gutxi samar irakurri eta idatziko duen jende multzo horri beste alfabetatze maila bat dagokio. Alfabetatzearen estrategia mugatzean kontuan hartu beharko dira jende mota horren premia eta interes bereziak. Premia horien zerbitzuan legoke alfabetatzearen oinarritzko maila.

Ikuspegi horretatik, zenbait alfabetatugairen helmuga oinarritzko maila gainditzea izango da. Izan ere, alfabetatzearen oinarritzko maila gainditzen duenak irakurmen eta idazmenaren alorrean eguneroko premia arruntei euskaraz erantzuteko gaitasuna izango du, eta, ondorioz, alfabetatutzat jo beharko genuke pertsona hori.

Bestalde, EGAraino iritsi nahi duen euskaldunzaharrentzat alfabetatzearen oinarritzko maila lehenengo pausoa izan daiteke.

Beraz, alfabetatzearen prozesuak ez du helmuga bakarra; maila desberdinak izan ditzake: oinarritzko maila eta EGA.

Dena dela, eta garrantzikoena hemen egin den bereizketa izan arren, ezin da aipatu gabe utzi alfabetatze teknikoaren maila. Alfabetatze teknikoaren helburua lanbideek eskatzen dituzten hizkuntz gaitasun bereziak lantzea da, lansail desberdinetan euskara erabiltzeko behar diren trebetasunak lortzea, lan horietan aplikagarri izan daitezen. Adibidez, administrazioan, osasun-zerbitzuetan, banku eta aurrezki-kutxetan, komunikabideetan, merkatalgoan, garraiotan etab. Baina alfabetatze teknikoa maila berezi bat ote? Ez ote da, zehazkiago, EGA edo oinarritzko maila egokitua, hau da, lansail desberdinen premiei erantzungo dien EGA edo oinarritzko maila?

Galdera horiei erantzunez urrunegi joan gaitzke, eta oraingoz alfabetatzearen maila berezizat jotzea izango da egokiena. Horrela hiru maila dira alfabetatzen: alfabetatzearen oinarritzko maila, EGA maila eta alfabetatze teknikoa.

Alfabetatzearen oinarritzko mailaren beharra eta bereizketa adierazi ondoren, maila horri dagokion programa gauzatu beharko litzateke. Horretarako, edozein programak eskatzen dituen pausoak eman beharko dira: publikoaren ezaugarriak mugatu, helburu egokiak erabaki, edukiak aukeratu, metodologia aztertu eta bitarteko guztiak prestatu.

Jakina, programa hori euskaldunzaharrei begira egin beharko litzateke, eta ahalik eta praktikoa izan beharko luke, eguneroko bizitzan aurkitzen dituzten premiei erantzuna emateko modukoa.

Amaitzeko, arazo larri bat aipatu nahi nuke. Maila honetarako oso alfabetatugai gutxi dago.

Euskaldunzaharra, besterik gabe, ez da etortzen alfabetatzera. Etortzen

den gehiengoa, ia denak, titulu bila dator, lanerako edo beharrezko duelako. Zertarako alfabetatu? Hori da galdera. Ez da produktiboa. Gizarte honetako koordinatetatik kanpo gelditzen da. Eta motibaziorik ez dago. Horrela, momentuz behintzat, etorriko ez den jendearentzako programa izango da.

Besteak beste, publizitate kanpainak egoera aldatzen lagun dezakete, euskaldunzaharregan euskaraz alfabetatzeko gogoaz sortuz. Zenbait kultur ekintza ere lagungarri paregabe gerta daiteke. Handik edo hemendik giro eragingarria lortzen ez den bitartean, ez da alfabetatugairik izango eta, egoera horretan, alferrik dira alfabetatzeko programak eta ahaleginak.

Gurutx Larrañaga

Tituluen gaintik eta azpitik Euskara sakondu eta euskal sena berreskuratu beharra

Jakina denez, Euskaltzaindiak ematen zuen D titulua desagertua da jadanik. Haren ordez, Euskararen Gaitasun-Agiria sortu da Eusko Jaurlaritzako Hezikuntza Sailaren babesean. Hori Euskadiko Komunitate Autonomoaren esparruan.

Agiriaren «transferentzia» horrez gain, nobedaderik handiena agian hauxe da: hemendik aurrera euskararen jakitua lau trebetasunen mailan aztertuko dela gehienbat eta ez ezagupen gramatikal edo linguistikoen mailan.

Hizkuntzari buruzko ikuspegi-aldaketa hau azpimarratzekoa dela uste dut, zeren aurrera pauso nabaria suposatzen bait du, teorian behintzat. Hizkuntza komunikazio-tresna izanik, erabilpenaren mailan frogatu behar dira batipat trebetasunak, eta ez linguistika mailako teorizazio formaletan.

Azken urteotan, D titulua zela eta, kritika asko izan da han eta hemen, batez ere azterketan eskatzen ziren gaiak buruz. Zenbait kritikaren arabera, titulu horrek ez zuen behar bezalako garantiarik ematen euskararen ezagutzari eta erabilerari buruz, eta hori batipat azterketa edo frogak ia erabat gramatikaren inguruan ardatzua zegoelako.

Gero eta argiago dagoenez, hizkuntza baten ezagutza bi mailatan planteatu daiteke: gramatika edo linguistika mailan eta erabilera praktikoaren mailan, hau da, lau trebetasunen mailan. Bata ez dago bestearen kontra, baina beharrezkoena eta oinarritzekoena, gure kasuan behintzat, euskara egoki erabiltzeko trebetasuna da.

Gertakari baten irakaspenak

Hona hemen fenomeno jakingarri bat: gaurregun bizi diren euskal idazlerik gehienek liburuak irakurriz eta apunteak hartuz berreskuratu eta sakondu dute euskara, eta hortik abiatu dira gero idaztera. Bide hori alfabetatzeko metodo ona eta fruitukorra gertatu da urte luzetan zehar.

Azken urteotan hainbat ikastola, ikastaro eta alfabetatze-saio antolatuta da euskara ikasi eta sakontzeko, baina badirudi euskararen erabileran eta batez ere idaztearen mailan ez dela hobekuntza nabarmenik sumatzen. Zer gertatzen da? Bada garaia fenomeno hau aztertzeko eta kasuan kasuko ondoriak ateratzeko.

Dena den, eta hipotesi bat aurreratuz, zera esango nuke: hizkuntzaren ikuspegi faltsu baten gainean oinarritu dugula geure metodologia, oro har, eta gure ahalegin borondatetsuek fruitu eskasegiak eman dituztela aukeran. Tamala da.

Gramatikaren mugak

Azken urteotan, gramatikaren morroi bihurtu gara euskaltzaleok. Gramatikaren sindromea ikaragarria izan da, eta da oraino ere. Eta ondorenak begi bistan daude. Jendeak ez du euskararen senik; ikasle asko gramatikaren karamiletan katigaturik gelditzen da, hizkuntzaren dinamikaz jabetu gabe.

Argi eta garbi esan beharra dago: gramatikak (eta linguistikak ere bai) baditu bere mugak. Ez dago gauzak mitifikatzerik eta are gutxiago hizkuntzaren eremu zabala gramatikaren monopolio bihurtzerik. Hizkuntzalariaren eta gramatikariaren ikuspegia partziala da ezinbestez hizkuntzari buruz. Jende asko erabat liluraturik dago oraindik gramatikaren distiraz, eta hori galgarria izan daiteke hein batean. Gramatikak badu bere egitekoa, baina hizkuntza (eta euskara ere bai) gramatika baino askoz gehiago da. Hortaz, ondo berezi beharra dago gramatika eta hizkuntz irakaskuntza.

Hizkuntzaren erreferentziak

Euskararen inguruan sortzen diren auziak eta eztabaidak benetan bitxiak dira askotan. Izan ere, badirudi eguneroko bizitzan erabiltzen ez dugun hizkuntza arrotz batez dihardugula. Eta hortxe dago egon ere gaitz guztien edo gehienen iturburua.

Jende asko egiazko erreferentziarik gabe dabil euskararen arloan. Eta, jakina, bi ertzetan ondo markatu gabe dagoen bide batean gerta litekeena gertatzen da hizkuntzaren arloan ere: erreferentzi puntuak argi ez edukitzearen, itsumustuka eta noraezean dabil jende asko.

Zein dira, beraz, euskararen erreferentziak edo zuinak? Labur esanda, ahozko euskara eta euskara idatzia. Bestela esanda, hitzun onak eta idazle onak, lehengoak eta oraingoak. Ez dago beste formularik eta errezetarik. Bi mugarri horiek markatzen dute euskararen bidea. Hortaz, bidea ez galtzeko irizpide seguruak nahi dituenak bi erreferentzi puntu horiekin jokatu behar du. Eta bere pausoz (estilo) ibiltzen ikasi, noski. Hori da hizkuntzaren jabe izatea.

Tituluen gainetik eta azpitik

Titulu asko banatu da azken urteotan euskarari dagokionez. Jende asko dabil oraindik ere titulu bila. Gu ez goaz horren kontra, noski. Baina kezka bat azaltzea zilegi bada, hona hemen argi eta garbi: zenbateraino sakondu eta sakontzen da euskara eta euskal sena? Ez ote dira gauzak oso axaletik hartzen?

Zenbait irakasle eta andereñoren galderak oso bitxiak gertatzen zaizkit. Gutxienez esan beharrekoa hauxe da: kriterio falta izugarria dagoela euskararen inguruan.

Panorama honen aurrean, gauzak bideratzen hasi beharra dago nola edo hala. Titulu eta agiri guztien gainetik eta azpitik, arazoa euskara sakontzea da eta eguneroko zereginetan tresna bizi bezala erabiltzeko gai izatea. Ikasleak eta irakasleak jomuga horri begira jartzen ez baditugu, itsumutil aldrebesak izango gara. Eta harako esaerak dioenez, itsu batek bestea gidatzen badu, biak zuloan eroriko dira halabeharrez.

"Follow me" metodoa eta urrutiko infxaurren lilura

Behin baino gehiagotan etortzen zait gogora nire mutil koskorretako irakasle jator baten esaera hura: «Mirariak beti urruti». Eguneroko bizitzak irakatsi dit, nola irakatsi ere, zenbaiterainokoa den Segundo maisuaren hitz haiei zerien jakinduria.

Bada aurreko ZUTABEn ere, 2. alean alegia, esaera zorrotza gogoratu eta mirariak larrutzeko dudan grina zaharra piztu didan pasarte bat. Erramun Baxok adiskideak, «liburuak eta aldizkariak» atalean, «Programmes 'Langues Vivantes' 1971-1981» liburuaren aipua egiterakoan, hala dio «Follow Me» programaz diharduelarik: «Follow Me» delakoa izan dela liburuaz aurkezten dituen 14 proiektu piloeten artean arrakasta handiena izan duena, «honen bidez miloi eta erdi germanofonok ingelesa ikasi bait du atalase mailaraino, hots, eguneroko maila arrunteraino» (165. or.).

Harridurak jota geratu nintzen, erabat txundituta, aurreko esaldia irakurri nuenean. «Europar horiek ez dituk makalak, horregatik. Alajainkoa!» niotsan nere buruari. «Miloi t'erdik ingelesa ikasi dutela ia kolpetik? Eta zer egiten diagu geuk hemen?» erantsi nion jarraian. «Hori ez duk posible» esan eta mirariaren erraiak arakatzeari ekin nion. Hona hemen, hitz dardarati hauetan, aurkitu nuenaren berri.

Ez dakit nondik atera dituen Erramunek goian aipatu ditugun hitzak, baina ez dut uste aurkezten duen liburutik aterako zituenik. Eta «uste» diot, ezin bait dezaket seguruz aitortu. Izan ere, batetik, liburuak, Erramun beraren hitzez, «apunte gisa idatzirik delarik, ez da irakurterraza» eta, bestetik, nire frantsesa ere ez hain goi-mailakoa.

Dena den, ekar ditzadan hona liburuak «Follow Me»ri buruz egiten dituen aipamenak, bereziki beraren bidez ingelesa «ikasi» dutenen berri ematen dutenak.

«L'intérêt de ce cours, qui a été préparé avec soin extrême et avec des concours multiples, est illustré par l'importance des auditoires —plus de 2 millions de personnes l'ont suivi en République Fédérale d'Allemagne et en Autriche—, par la confiance croissante placée par les enseignants...» (XVII or.).

«Rien qu'en République Fédérale d'Allemagne, par exemple, quelque deux millions de télé-spectateurs suivent régulièrement l'émission *Follow Me*» (55. or.).

«Il n'est pas douteux que le projet a, jusqu'ici, été en soi une réussite: une moyenne de 1 à 1,5 millions de téléspectateurs pour chaque émission de télévision rien qu'en République Fédérale d'Allemagne...4 (135. or.).

Ikusle/ikasleen kopuruaren arazoa alde batera utzirik, ez dut uste hiru textuen arabera Erramunek dioena aitortzeko, miloi eta erdi germanofonok ingelesa *ikasi* zuela, alegia. Izan ere, programak jarraitzea (suivre) eta *ikustea* gauza bat bait da, eta oso bestelakoa programak emandakoa, kasu honetan ingeles hizkuntza, *ikastea*.

Beraz, liburuak bera Erramun baino apalago ageri da. Aurrekoa nahikoa ez balitz, hona ondoren beste bi testu:

«Il est cependant encore trop tôt pour prédire une réussite à long terme de l'apprentissage» (135. or.).

«Dans un projet futur, on pourrait peut-être examiner de plus près le cas du téléspectateur à domicile qui ne veut pas ou ne

peut pas assister à des cours réguliers; cet aspect a été négligé dans le projet actuel» (136. or.).

Hortaz, eta «Programmes 'Langues Vivantes' 1971-1981 liburuak Erramunek dioenik esaten ez duenez gero, beste iturriren batean jasoko zuen gure adiskideak aitortzen duenaren berria. Itxuraz behintzat, ez dago beste irtenbiderik. Baina, orduan, zertara dator liburu baten aipamenean, bertan dioena ez baina beste nonbaitekoa aipatzea?

Ate bakoitzak bere maratila duenez, hirugarren hipotesi batek atera gaitzake gauden zulotik. Izan ere, bada nire iritziz beste explikazio bat, eta erratzeko arriskuan jartzen banaiz ere, hementxe azalduko dudana. Hutsegingo banu ere, ez nintzateke gehiegi kezkatuko, zeren batetik, hipotesia baten aurrean da-goelakoaren jabe bait da irakurlea eta, bestetik, orain artekoa aitzakia besterik ez bait da gero datorrena esan ahal izateko.

Erramun beraren hitzek ematen didate hipotesia arriskatzeko aukera. Hone-laxe dio komentatzen ari garen bere lantxoan:

«Pirene Atlantiketako Kontseilu Orokorrak honen antzeko bi projektu finantziatu ditu, bat Iparraldean euskara irakasteko eta bestea Oc hizkuntzari buruzkoa Biarnon».

Eta Erramun bera denez euskarazko projektuaren zuzendaria, dena argi egon daiteke. Hona hemen nire hipotesia, zenbait puntutan emana:

- 1.—Erramunek erabili duen iturri nagusia aipaturiko «Programmes 'Langues Vivantes'» hori da.
- 2.—Liburu horretan *jarraitu* eta *ikusi* jartzen duen textuetan Erramunek *ikasi* irakurri du, edota hala dio behintzat.
- 3.—*Ikasi* irakurtze hori honako arrazoiengatik izan daiteke:
 - Erramun Iparraldeko projektuaren zuzendari izanik, produktua saldu beharrean aurkitzen da. Izan ere, bai bait daki Erramunek, ondo jakin ere, zenbait projekturi bihotz-bero, ilusio handiz eta itsu-itsu heltzen ez bazaio, jai dagoela.
 - Bestalde, euskara ikastea oso zaila dela nahiko zabaldua dagoenez gero zenbait bazterretan, esan beharra dago badaudela aukerak, erak eta bideak bigarren hizkuntza erraz ikasteko.
 - Gainera, Euskal Herriko egoera larria ikusirik, argi dago euskara masiboki ikasteko aukerak eman eta horretarako metodoak bilatu behar direla.
 - Horrezaz gain, eguneroko eta inguruko lanabesak eta tresnak amu-tsak direnean, norabait jo beharra dago zerbait hobeagoren bila.

Eta honaxe ailegatu nahi nuen, galdera xalo bat egin ahal izateko:

- Zenbat frustrazio sortaraziko ote dugu projektu baten izenean edo hel-duak euskalduntzeko asmoz? Eta eskuak garbi dituenak bota beza lehenengo harria.
- Ez ote zaigu «Follow Me»rekin urrutiko intxaurrekin gertatzen dena gertatuko? Urrutitik hamalau dituela uste eta bertara joan eta laurekin aurkitu?

Bide batez, esan dezadan zutik dirauela «Follow Me»ren azpian dagoen desafioak: nola irakatsi bigarren hizkuntza, gurean erdaldunei euskara, inoiz eskolara (gauskola, euskal eskola, euskaltegira) etorriko ez diren hainbat eta hainbati? Asmatuko al dute Iparraldean? Asmatuko ahal duzue / dugu!

Hauxe besterik ez. Zuri dagokizunean, berriz, Erramun, badakizu hemen gaituzula beso-zabalik eta esperientzia berriaren emaitza oparoaren zain.

Ekin kementsu eta jarrai gazte. Adiorik ez.

Euskal letren zirkotik, xalotasunez

Artikulu honetan idazkeraz hitzeging nahi dut. Zehazkiago, informaziozko komunikabideetako idazkeraz. Eta, hasteko, zera esan behar: idazkera-motak arazo latzak dakartzala eguneroko praktikan.

Literatur hizkuntza eta informaziozko textuetako hizkuntza ez dira gauza bera, bistan denez. Lehenengoa librea da, bere aldakuntzak ametitzen ditut; besteak, berriz, disziplina haundia eskatzen du. Informaziozko komunikabideen eginkizunetariko bat —eta areago gure kasu konkretuan, euskarazko munduan— hizkuntz mota bateratu bat finkatzea da.

Beldur naiz ez ote zaigun oraindik horretara iristeko askotxo falta. Mundu guztian bezala, hemen ere idazle onak eta txarrak daude. Hemen, «idazle onak» eguneroko martxan maisu beharrik ez dutenei deitzen diet. Gutxi dira gaurregun Euskal Herrian, nire ustez.

Beste kategorian pelotoi zabala dago. Jende honek intuizioz jokutzen du, bere dudak baditu eta, azkenean, ondoan maisuren bat badu, ondo askatuko ditu hizkuntz korapiloak. Baina askotan ez da horrelakorik gertatzen, norberak ahal duena egiten du, eta jokabide horren ondorioz, euskal letren zirkoa itxura gutzietako piztia bezalaxe betetzen da.

Hemen arrisku latza dago: genetika ezezaguna duten hizkuntz piztia horiek luze irautearena, alegia. Luze iraun eta familiarreko bihurtzearena.

Nola saihestu arrisku hori? Hasteko, geure mugez jabetu beharrean gaude. Batzu beren buruak engainatuz dabilta: idazkera txukuna dutela uste dute, baina horrelako artikulu bat gaztelaniaz idatzi eta Madrilgo egunkari batera bidaliko balute, baten bati lana franko emango liokete hori tajutzen eta zuzentzen.

Geure eskasiaz ohartu ondoren, hurrengo pausoa gaurregun ondo finkatuta dauden hizkuntz arauak geureganatzea izango litzateke.

Hau ez da lan zaila; Euskaltzaindiak oso gutxi arautu du oraindik. Eta ez dago urrutira joan beharrik arau horien berri izateko. Eusko Jaurlaritzak, iaz edo, «Euskaltzaindiak batasunerako eskaini dituen erabakiak» liburua kaleratu zuen. EGA titulua atera nahian dabilen jendea aguro aski enteratu zen horretaz, eta liburuxka ondo irakurri ere bai, baina beste asko, jadanik euskaratik bizi den jende multzo eder hori, oro har, hortxe dabil oraindik, arauak ondo ikasi gabe.

Eta gero komunikabideetan «ziur», «ibai», «iaz» eta beste zenbait hitzi hatxea eransten zaie orandik; «arazi» eta «erazi» formen erabileraz inor ez da aklarutzen; «nire» eta «nere» hitzekin askaezinezko dudak sortzen dira, eta abar eta abar.

Horrelako pausoak emanez gero, komunikabideetako hizkuntz egoera pittin bat behintzat hobetuko litzateke.

Baina begien bistakoa da arazoa hori baino askoz sakonagoa dela. Euskaltzaindiaren arau guztiak ikasi ondoren, hutsune eta duda franko gelditzen zaio informazioa idatzi behar duen idazleari. Oso duda sinpleak; ez pentsa estilistika arazo sakonez ari naizenik orain. Dudak izaten dira «du» ala «dauka» idazterakoan, komak non jarri erabakitzerakoan, gidoia jarri ala ez, eta antzeko kasu arruntetan.

Orain dela lau zapabost urte izan nuen euskarazko kazetarien arteko bilkuraren batzu egiteko asmoren bat, baina beharbada pretentsio haundiekin has-teagatik, arazo estilistiko bereziak ere tartean sartu nahi izateagatik, azkenean gauzarik sinpleenak ere argitu gabe gelditu ziren. Azkenik, lehenengo tanteoen ondoren, batere funtsezko batzarrerik ez zen egin.

Nire ustez, orain une egokian gaude horrelako batzarreraren bat pentsatzen hasteko.

Bestalde, ez litzateke gauza txarra izango batzuren batzu oraintxe bertan orain arte informaziozko komunikabideetan argitara eman diren artikuluen azterketa egitea eta sarrien agertzen diren akats nabarmenak biltzen hastea. Bilketa egin ondoren, halako idazkera-liburu bat osatu beharko litzateke, beste tokietan dauden «libros de estilo» horien antzekoa. Hor dudarik inportanteenak argituko lirateke eta trakeskerien zerrenda luzea ere eskainiko.

Hau ere gutxieneko pausoa da. Eta ez da gehiegi eskatzea. Urtebetean bi lagunek nahiko lan polita egin dezakete.

Horrelako idazkera-liburua eskuarteaz izanez gero, kazetariari zernolako gutxieneko baldintzak eskatu beharko litzaizkiekeen jakingo genuke.

Orain artean esan dudan guzti hau ez da zailegia. Hurrengo pausoa, bai, hori zailagoa da: estilistika berria sortzea, alegia. Horretarako, aztertze lan neketsua egin behar da: orain arteko altxor lexikal eta baliabide sintaktikoak neurtu eta errekuiperatu eta, gainera, informazioak eskatzen dituen kontzeptu berriak eta estiloa asmatu. Horretaz beste askok nik baino askoz gehiago esan dezakete eta bukatzera noa honenbestez.

Felix Ibargutxi